

URRIAK 18: ALACANTEN MOBILIZATU GARA

Bankoak Langileen beharreri jaramonik egiten ez dienez, iritsi da unea enpresari gure eskakizunak beste modu batez entzun arazteko.

Aurreko zirkularretan aurreratatu dugun bezala, Banco Sabadellen ordezkariak dugun sindikatu gehienek, gure erantzukizuna onartzen dugu eta batera diardugu irtenbide eraikitzaileen bila, langileek jasaten ari diren egoera arintzeko asmoarekin. Horregatik, manifestazio deialdi hau plazaratzen dugu:

URRIAK 18, 17:30etan

BANCO SABADELLEK ALAKANTEN DUEN EGOITZA SOZIALAREN AURREAN

Enpresak onartu behar du egungo egoera onartezina dela. 4.000 lanpostu baino gehiago suntsitzeak (Borondatezko Irteeren Plana + EEE) lan-giroa hondatzea eragin du, lan-karga onartezinak sortuz.

Mahai gainean jarri ditugun eta enpresak landu nahi izan ez dituen puntuak ebaztea ezinbestekoa da.

Berdinen arteko enpresa-ordezkarari (LLO) negoziazio harremana eskatzen dugu, eta lortu nahi dugu. **Akordio ez traumatikoak negoziatzeko konpromisoa hartzen dugu.**

Ibilbide luzea egin dugu maiatzetik, **EKINTZA SINDIKALEKO UNITATEA** sortu genuenetik, baina enpresa erosoago dago LLOaren mendekotasun-harremanaren eredian, bere borondatearen eta erritmoaren arabera. Eta horregatik jarraitzen du bere jarreran katramilatuta.

Benetan tamalgarria dena da erakunde sindikal batzuek harreman mota horrekin bat egitea, langileen eskubideak emanez. Zeren truke?

Eskua luzatzen diogu enpresari lan-baldintzak hobetzeko (eta ez okertzeko) hartu behar diren neurriak aurrez aurre negoziatzeko. Hori lortu arte mobilizazioekin jarraituko dugu.

Lehenengo ekintza elkarretaratze hau izango da, baina etorriko dira beste batzuk ere eta plantilla osoa parte hartzera deituta egongo da. Zure lankidearen **GAURKO** lan-arazoak **BIHAR** zureak izan ahal direlako.

Ekimen honen gakoa, lan-gatazka guztietan bezala, plantillaren konpromiso-gaitasunean datza. Historia egiteko moduan gaude. Zuen parte-hartzea erabakigarria da, elkarrekin indartsuagoak garelako.

EZ GARA BAKARRIK IBILIKO !

- **SOLDATA DUINEN ALDE.**
- **LAN-KARGA EGOKIEN ALDE.**
- **AURREZ ZEHAZTUTAKO KARRERA PROFESIONAL BATEN ALDE.**
- **NEURRIGABEKO PRESIOAREN AMAIERAGATIK.**
- **TELELANAREN AKORDIO BATENGAITIK.**
- **DIGITALIZAZIORA EGOKITUTAKO TRESNEN ALDE.**